

Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-en euskal testuak

FRANTZISKO ONDARRA*

SARRERA

Ezagutzera ematen ditugum bi testuok Narbarteko semea den Lakoizketa apaizak idatziak dira. Erljio agiriak dira, predikuak direlarik, eta Bidasoa aldeko euskaraz daude moldatuak¹.

1. Testuen deskribapena

Esan dugun bezala, bi dira, batek 16 orrialde betetzen dituela eta besteak 6, hura hari zuri bikoitzez dagoela josirik eta bigarrena hari zuri bakunez. Orriak c. 205 mm. luze eta c. 148 zabal dira lehenbizikoan, eta 210 luze eta c. 152 zabal bestean. Ur marka A Ragueta da lehenengoan eta LEYZA bigarrenean.

2. Nor, non eta noiz

Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz (1801-1858) da egilea. Jose Maria de Lakoizketa (1831-1889) botaniko ospetsuaren osaba da, Narbarten jaioa eta Erratzun hila, bertako erretore zelarik. Donamariako erretore zelarik idatzia da 1. testua 1829. urtean, 2.a geroagokoa dela, gure ustez.

* Euskaltzaindia.

1. Eskerrak eman behar dizkiegu Miguel Sánchez Ostiz, Nafarroako Literaturagila izen handikoari eta Eduardo Gil Bera pentsalari euskaldunari testu hauek gure eskuetara ekarri dituztelako. Bigarrenari, gainera, zor dizkiogu egileari buruz ipintzen ditugunak, bai eta hizkuntzaren inguruan ukitzen ditugun zenbait xehetasun ere.

3. Hizkuntzaren inguruan

Grafia eta fonetika

Grafia. Bokaletan, behin *v*- kontsonantea *u*- bokalaren ordez dago 1. tes-tuan. Beste gertakari jakingarririk ez dugu ikusi.

Kontsonanteetan, *b*- erruz hasieran 1.an, askoz urriago 2.ean; *-b*- barru-koa noizean behin 1.an, ia bat ere ez 2.ean. “*Christo*” eta “*Cristo*” ageri dira 1.an, “*Cristo*” bakarrik 2.ean. Aldian behin 18. mendeko *r* grafema erabil-tzen da 1.an. Badago azentu markarik, laburpenik *ia* bat ere ez.

Fonetika. Bokaletan, aurkitzen dira hiatoa dela-ta sortu ohi diren fenome-noak, nabarmenena delarik *ea* sekuentzia *ia* bilakatua.

Kontsonanteetan, *y*- erdikontsonantea nagusitzen zaio *j*- kontsonanteari hitz hasieran. Fonetika sintaktikoaren arloan “*baitago*”, “*baicaituzte*” eta “*baitzuten*” ditugu.

Morfologia eta sintaxia

Morfologia. Deklinabidean hauek ditugu: ergatibo plurala *-ak* eta *-ek* morfemez moldatua aurkitzen da; datibo plurala honela ikusi dugu: “*Judio-ein*” 2,1 eta “*Yendiequen*” 2,1, eta soziatibo plurala honela: “*nigar hurieiquin*” 1,2, baina “*nigar hurieiquin*” 1,10, eta “*lagrimaiquin*” 1,2; inesiboa pertsonetan *baitan* da; ablatibo plurala bizigabeetan *-tarik* da 1.an, *-tatik* 2.ean: “*escueta-ric*” 1,10 eta “*entrañetic*” 2,2,1.

Erakusle hauek bildu ditugu: *hau*, *honek*, *hunetan*, *huntan*, *bok*, *hoken/bo-kien* ‘hauen’, *bekin* ‘hauekin’; *bori*, *hortan*, *horiek*; *hura*, *hark*, *haren*, *baek*, *beren*.

Izendordain pertsonalak hauek ditugu: *ni*, *niri*, *nere*, *neretako*; *zu*, *zure*, *zere*; *zuek*, *zueri*; *gu*, *gure*, *geren*.

Sintaxia. Bakan-bakan ematen da genitiboa objektuaren ordez, eta gutxi-tan erlatibozko perpausak *bait* aurrizkiarekin. Salbuespen gisa ageri da aditz *nagusia* + *ez* + *aditz laguntzailea* egitura²: *guelditzen eztena* 2,2,1, *merezi eztugu-ma* 2,2,1, *siñesten ezpaitzenu bezala* 2,6,1, eta besteren bat.

Hiztegia eta adizkitegia

Hiztegia. Zenbait hitz ematen ditugu, bereizgarri edo izan litezkeelako: *abiadura* ‘hasiera’, *aitzin*, *aldi/aldiko* ‘zartada, kolpe’, *antzi*, *atzendu*, *aundi*, *au-nitz*, *auts* ‘pulvis’, *barride*, *beratu* ‘bigundu’, *beriala*, *bertze*, *deusez* ‘ezerez’, *edade*, *edekilideki*, *ekendu*, *hemekeri*, *erroitz*, *Espiritu Sancti*, *gazte*, *guzi*, *yayo / sortu*, *Jaungoiko*, *hizi*, *kristau*, *manatu*, *moskorkari*, *nereabel/nirabe*, *ongaitzak*, *saki*.

2. Ik. J. A. LAKARRA: “Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean”, *ASJU*, XX-3 (1986), 639-681 (lk. 655 or.).

Adizkitegia. Hona zenbait adizki gogoangarri: *bailire* (bezala), *bailitz*, *bailu*, *baizenu*, *dezake*, *dezazuen*, *dezulduzu*, *diezadazu*, *diozozu*, *ditizuldizkizu*, *zaitezin*, *zaitia* 'zaitetz', *zinduan* 'zintudan', *ziozue*.

4. Gure lana

Izan ditugu arazoak erabakitzeke hitzak edo hitzen zatiak bildurik ala banaturik eman behar genituen. Izan ditugu buruhaustekak hasierako grafema larria ala xehea zen erabakitzen, eta hori dela-ta beti hizki larriekin idatzi ditugu *Jende*, *Judu*, *C(b)ristau*, *Catolico*, *Seme*, *Zeru*; xehearekin berriz *ciudade*.

Hiztegia atalean ez ditugu hitz guztiak ematen eta *Adizkitegia* atalean ia denak sartzen ditugu.

Laburdurak: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, d. determinatzailea, i. izena, ik. ikus, io. izenordaina, j. juntagailua, p. posposizioa.



1. TESTUA

Sermón para la Dominica 5^a, de quaresma

Tulerunt Judaei³ lapides, ut jacerent in Jesum; et concilium fecerunt, ut dolo tenerent, et occiderent. Joan. Cap. 8: ex v. 46 usq. 59. inclus. Año 1829⁴.

Nihoiz here baño obequi deseaten nuque presentian, Sn. Agustin Elizaco Doctore aundiaren, adimentua, capacidadia, eta su garrezco amorio abrasatu hura, zueri declaratu, eta explicatzeco, S. Juan Evangelistac ematenditigun noticia triste, eta lastimagarriac, eta zein direla usteduzue hoc?

Erran beza bada gure Guiaria, eta maestra den bezala, Eliza Ama Santuac, baitago yá dagoneco, hoyu, deadar, eta marrascaz; zeren egungo eguna bezalacoarequin, yocatu baitzuten, arrica, bere Esposo Divino Jesu Christo gure Redentores, hegungo eguna bezalacoarequin, heguintzitiotzen, altzuten burla, eta desprecio guciec, deitzenzutelaric, Samaritanua, herran naibaitu guizon escandalosua, egungo eguna bezalacoarequin heguintzuten Judueq, concierto madaricatu hura, zeñaten guelditu baitziren [2] conforme gurutzeficatu bearzutela Jesu Christo gure Redentorea, *concilium fecerunt, ut Jesum &*.

Icusazue horay baduen gure Eliza Ama Santa Catolicoac arrazoiric asqui, hoyu, deadar, eta marrascaz egoteco, bere Esposo divinoaren baitan icustenduen naigabe aundiaz. Erran beza alaber María Santissimac baitago gucia aflightua, congoja, eta penaz betia, consideratzen bere Seme Divino Jesu Christo gure Redentorearen heriotze, eta pasione dolorosua, ó nolaco naigabiac inguratzen duten aren viotza, dolorezco ezpata bortizarequin atravesatua, aditzaz beraz aren Seme Divino Jesu Christo gure Redentorearen contra

3. Eskuidatzian (E) "Judei". Latinezko beste okerrok zuzendu ditugu: "Judei" 5, 2; "obem" 15; "peccatore" 15; "penitentiam" 15; "nobem" 15.

4. Data ondoan errubrika.

Juduec⁵ eguintzituzten burlac, nausac, desprecioac, eta azquen fiñian gurutzeficatzeco concertua, nolacó nigar hurieiquin edo lagrimaiquin erraten zuen, hay nere viotzeco Jesus maitía, hay nere Seme divinoa, zer eguiñendut nic zu gabe? Noraco naiz ni nere afliccione, eta pena gucietan? Hay nere desconsolatua, horay gueldituco naiz ni desamparaturic, hizanden, eta hizanenden Semeric oberena gabe, horay gueldituco naiz ni Alargunduric, nere Esposo, [3] eta Seme maite hura gabe, ó nere viotzeco Jesus maitia, eta maitagarría, zerdela causa eguindute Juduec zure gurutzeficatzeco junta edo concertua? hoc dire María Santissimac bere viotzian entzerratzendituen penac. Herranbeza álaber egungo naigabea, Trintate Jaun Poderosoac, egun, dolu, edo lutuaren medioz bere laudarioa, erranbezate álaber Santuaeq, zeñehi ezpaitiogu escatzen, beren bitartecotasuna, eta lagunza, erranbezate alaber lutuz yaunziric dauden Aldare, eta Imagiña horiec, zeñeq claroqui ematenbaitute aditzera, gure Eliza Ama Sandua dagola gucia naigabem, congojaz, eta penaz betia, ó nere Christau lagunac, norc idurizaizue causatzendituela, hainbertzeco nigarrac, suspiroac, eta naigabeac? Zergatic usteduzue dagola egun, gure Eliza Ama Santua, guziya doluz yaunzia? Vaña hay milletan gure desdichatuac, gu gara naigabe hoquien guzien causa, gure becatuac, eta maldadiac direla medio, dacagu Eliza Ama Sandua, nigar eta marrascaz, becatua eguitendugun aldiero, paratzen dugu María Santissima congoja, eta penaz betia, [4] gaitzestendugu Trintate Jaun Poderosua, hitz batian, becatua eguitendugun aldiero, gurutzeficatzendugu Jesu Christo gure Redentorea, auda egun gure Eliza Ama Sanduac, hain triste, eta desconsolaturic, egoteco duen motibua, orrengatic cantatzendigu Evangelio doloroso eta lastimagarría, vada icusiric, eta ezaguturic, Garizuma Santuco dembora precioso hunetan, eztutela Becatariac casuric bathere eguin, Jaungoicuaren Ministro Predicarien agotic aditudituzten conseju, eta desengañuez, valiatzenda azquen erremedioaz bezala, misterio doloroso, eta lastimagarri huntaz, erratembalu bezala, ea Becataria, icusdituzu, aldare, eta imagina horiec, nola dauden doluz yaunziric?

Vada yaquinazazu becatu mortala consentitenduzun aldiero paratzenduzula, zere animaren, eta Jaungoicuaren artian, muralla vortitzbat, zeñen medioz guelditzen baitzara apartaturic, Jaungoicuaren aurpeguia icusteco videtic. *Iniquitates vestrae diviserunt inter vos, eta Deum vestrum.* Ezdituzu icusten alaber Aldariac, eta Imagiñac, estalzendituzten oyal horiec, direla beltzac, vada yaquinazazu modu hunetan berian bezten duzula zere anima becatu mortala eguitenduzun aldiero, eta eztuzu icusico Jaungoicuaren aurpegui eder hura, non eta eztiozum escatzen barcacioa, eguiazco confesiobaten medioz, [5] allegazaita bada, nornay zarela zu Jesu Christo gure Redentorearen oñetara, escadiozozu confianza osoarequin lenic becatu gucien barcacioa, eta guero haren servicio sanduan vizitzeco lagunza, favoría, eta gracia.

5. Hemen *Juduec*, baine "Judueq" 1, 2 eta "Judubec" 3.

Ave María.

Tulerunt Judaei lapides, ut jacerent in Jesum &

Animabateq hizandezaquen gusto, atseguintasun, eta fortunaric aundien aundiena dá, conseguitzia edo herdistia secula gucian hiraumbearduen viena-venturanza hura, icusten, eta gozatzenduelaric Trintate Jaun Poderosoaren Magestade, eta edertasun miragarri hura, gloria Sandu hunetara asistitzendute Iru Persona Divinoeq, dá yaquitera⁶ Aita Eternuac, bere podore, eta providencia miragarriarequin, hunen Seme divino Jesu Christo gure Redentoreac, bere yaquinduria, vicitza, heriotze, eta pasione santuarequin, eta Espiritu Sancti Jaunac, bere gracia, eta amoriozco doay ederrequin⁷, horrengatic bera gatic gure animaco, hiru potencia ederhetan, baitira, memoria, entendimientua, eta vorondatia, daude significatuac, Trintateco Iru Persona divinoac; Memorian dago significatua Aita Eternua, zeñeq ezaguturic gure deus eza, eta flaqueza [6], emanzitigun, arma espiritualac, nola baitira, otoitzac, eta sacramentuac, garaitzeco Infernuco etsayaren tentacioac; entendimientuan dago significatua, Jesu Christo gure Redentorea, zeñec soillqui eta bertze interesaric gabe gure animac salvatziagatic, pasatu baitzuen eriotze, eta pasione vortitz hura; vorondatian baita amorioaren asentua, entenditu beardugu, Espiritu Sancti Jauna, zeñeq betetzen baititu gure viotzac, bere amoriozco gracia, eta caridadiarequin.

Gloria sandu hunetara bada convidatzen gaitu, gure Jaungoico amoro-suac, erratendigaric, *venite ad me omnes, qui laboratis, eta onerati estis, et ego reficiam vos.*

Vaña aitzinathago pasatu gabe, naidizuet paratu beguien aitzinian, nola portatzenden gure Jaungoicoa gurequin sortutzengaren egunetic, heriotzeco orduraño, eta zein gaizqui, eta cruelqui corresponditzen dion Becatariac, gure Jaungoico amorosuari, hunetaracotz zuec obequi entendidezazuengatic, valiатуо naiz, munduco Erreinu hetaric batian guertatuzen casu batez, ezdi-zuet errain non guertatuzen, aliqueta ongui entanditu artaño Historia hau =

Ocasio batez, bere vidian zioalaric Nescacha gaztebat, herorizen ladronen escuetan, arrobotu, eta equenduzitiozten bere hon, gaitzac, eta [7] josizuten puñalaco aldiz, eta beren Burubac obequi aseguraziagatic, eta niorc here yaquiñetzezengatic⁸ Nescacharen berriric, disponituzuten heraman bearzutela arpeña aundibaten gañera, eta andic botatu bearzutela secular aguerico etzen erroizbat bera, hunetaracotz, aisago eramateagatic, utzizuten soill hill gabe, vazeramaten bada, nescaha miserable hura, eta icusizuenian bere Buruba galdua, edo estadu miserabli⁹ artan, emancion, hoyu, deadarr, eta marrascari, vaña Ladronheq etzuten casoric batere eguiten, haren deadar, eta marrasquez, vstез animaric here etzela allegatzen, vasa mortu hartan; vaña ó gure Jaungoico miragarriharen misericordia infinitua, Nescacha triste hura, Ladronac erroitzera zeramaten demboran, zebillan parage hartan berian hiziyen Erre-

6. Agian "yanquitia" espero da.

7. E "ederequin" eta zortzi bat hitz aurrerago "ederbetan".

8. Espero dena "-etzezan-" da.

9. E "miserabli".

guia, aditu zituenian bada huneq nescacharen marrasca miñac, nola baitzebillan tragia mudaturic edo disfrazaturic, aterazitzen Ladronhey bidera, eta escatuzien valore aundiarequin, utzizezatela Nescacha hura, eta bertzenaz han beritan equenduco ziela viciya, icusizutenian Ladronheq Guizon bacarra, asiztaizquion burla, eta deshaire eguiten erratenziotelaric, Nescacharen fiña ber bera hizanenzuela harc here, eta hala hillbearzutelaco esperantzarequin, yocatu zitzaizquion Erregueri, vaña nola gure Jaungoico amorosuac, beti laguntzen baitio [8] caridadezco obretan empleatzen denari, hizanzen ain aundia Erreguiaren indarra, eta podorea, non eta herida zembait errecibitu, eta onduan, escapatu baitziren Ladronhec, uztenzutelaric Nescacha hura Erregueren podorean, dembora hunetan, berantetsizuten Erreguia, bere Grande, eta mutillac, guelditu baitziren, vasa mortuharen principioan edo abiaduran, eta sartuziren haren billara, mortu hura barrena, allegatuziren bada Erreguia zegoan lecura, eta icusi zutenian Nescacharen figura lastimagarria, guelditu ziren arrituric, horduan contactu zien Erreguec, zer pasatu zen, eta bereala manatzutuen eramanezatela lenvicico Errira, eta ecarziozatela bere Palacio Barber, Medicuac, eta sendazezatela haren costuz, eta vitartean, erreguelazezatela¹⁰ ongui, eta gueldizitezila han compañia eguiten, ála cumplituzuten, sendatuzen bada, dembora gutiren barrenian, eta emanzioten habisua Erregueri, bereala yuantzayon visitazera, erregalatuzuen Erreguebateri corresponditzenaizquion gauzequin, eguintzition tela ederrezco soñecuac, adornatuzuen, joya, eta diamante preciosoequin, eta hizanzen hain aundia, Erregueac artuzion cariñoa, non eta erreparatu gabe, nescacha harc canibeta aldicuen medioz bere aurpegiuan zituen señaletan, [9] eta marca nardagarrietan edo itsusietan, ezconduzen arequin, hicusizutenian ezconza modu hau, Corteco Grande, eta ainzindurieq, arrituric asiziren murmuratzen Erreguiaz, erraten zutelaric, zer dá hau? Erreguia ezcondu dá Nescacha pobre, eta itsusi batequin? Zer extremidade dá hau? En fin hura gueldituzen instante batez Erreguiña eguiñic, manatu zituen bere Erreinuco guciac, estimazezatela Erreguiña zen bezala, eguinzion Magestade aunditaco Palacio bat, disponitu, eta señaletuzien bere servitziaraco familia aundibat, ondarric goiti hizanzen hain aundia Erregueac hartaz eguinzuen estimacioa, non eta berac, bere escuz servitzaizen baitzuen aunitz gauzetan, Erreguearen cuidado gucia zen, nondic hari gusto emanenzion.

Ezdut dudatzen dagoneco aurquitzenzatela arrituric, Erregue hunen amorioaz eta portatzeco moduaz, vaña ó Munduco paguac, eta desengañoac, hadizazue horay nola correspondituzien Erreguiña huneq, bere Esposo Erregueac heguinzition merce gabeco favorehetara, bada errecibituzituen gracia, eta favorehetaz beraz heguinzituen, arma bortitzac, eta hicaragarriac [10], libertade gueyagorequin ofenditezco, bere Esposo Erregueari, guardatu bearzion le-yaltadea.

10. Hemen "erreguela-" eta beheitiago "erregala-".

Ezcondu eta lenvicico hillabetehtetan, eguitenzuen Erreguiñac here eguiñala Erreguiari gusto emateagatic, vaña dembora gutiren varrenian antziric, Erreguearen ganic errecibitu zituen gracia, favore, eta mercede aundiaz, abiatuzen bere guisa erreparatu gabe bere Esposo Erreguiari zortzion cariñoa, eta eguintzion ofensa aundia, artuzion amorioa bere Palacioan zuen Nirabe bati eta herorizen seigarren mandamentuco becatu liquits eta lizuñean. Yaquinzuen Erregueac delitu hau, eta hizanagatic zuen bezala arrazoiric asqui castigatzeuco bortitzqui, Erreguiña desleal, eta traidore hura, etzuen ála eguin, vaiciq deituzuen bere cuartora, eta amoriozco nigar huriequin, herranzion modu hunetan, ó nere Esposa maitea dá posible, zuc niri traicioa modu hunetan heguitía? Hain cruelqui, eta deshonestoqui corresponditzen duzu, nic eguinditizudan fineza, eta favore aundietara?

Erran diezadazu nere Esposa maitea, zertan ofenditu zaitut, zuc modu hunetan ni ofenditzeuco edo agraviatzeuco? Venturaz ofendituzaitut, zeren libratu zinduan¹¹ ladronen escuetaric? Ofenditu zaitut zeren ecarrinituen nere costuz Barber, Medicauac, zure sendatzera? Agraviatu zaitut, zeren beresi, eta autatu zaitudan nere Esposa, eta Erreguiñataco? [11] ofenditu zaitut, zeren eguin dizudan Palacioa, eta emanditizudan zere servicioraco, aitzinduriac, eta nereabiac¹²?

Ea bada nere Esposa maitea, veguira eta considerazazu nolaco agravioa, eta injuria eguitendiozun lenic Jaungoicuari, eta guero niri, yaquin zazu bada, nic badudala podoreriq asqui, zure castigatzeuco, eta viciyaren equenceco, vaña ocasio hunetan eztut valiatu nay nere justiciaz, bay solo naidut, hitzulzaitezin, nere gracia, eta amistadera, orduban bada guciya lotsa eta alquez beteric, aitortuzion bere fragilidadia, eta emancion hitza, etziola secular nerriz agravioric eguiñen; propositu huneq hiraunzuen dembora zatibatez, baña laster hitzulizen lehenagoco videtara, bada cosoric eguin gabe Jaungoicuaren legueaz, eta bere Senarrari zorzion amorioaz, abiatuzen berriberritic, lujuriazco becatuan erortzen, alaco sutasunarequin edo itsutasunarequin ezen, nori nay errateco moduan, entregatzenzion bere gorputza; publicatuzen bada Erreguiñac causatzenzion escandalua, aditzen zituen bitartean erreguiac, nolaco murmuracioac zebiltzan Cortean, dembora untan gucian gatzigatzenzion Erregueac, bere aitzinduri edo consejucoeq[ui]n, beguirazuela¹³ zer harizen, bada valdinetan baldin ezpalmibazen enmendatzen, yaquinzezala egunhartaraño harenganaco izanzuen amorioa, convertitucozela odioan, eta castigatuco zuela bortizqui, casoriq batere etzuen eguin Erreguiña deshonesto harc, nola mandatariez, nola Erreguiaren meachuez; orduan bada Erregueac, ira, colera, eta vengantzaz¹⁴ beteric, deituzituen [12] vere Grandeac, eta consejeroac, eta manatuzituen heguinzezatela justicia, eta castigua, haren Esposa Erreguiñaren baitan.

11. Espero dena "zindudan" da.

12. Hemen "nereabiac" eta goian "Nirabe" 10,2.

13. Espero dena "-zezala" da.

14. E "vengantzaz".

Zer idurizaitzue nere Christau Lagunac, horay aditu duzuen historia hune-
 taz? Esperadaiteque secular gauza arrigarriagoric? Vaña ó desgraciaren
 aundia, eta pena consuelo gabeco! hau bera guertatzen da gure baitan, zu
 zara ó anima Becataria, Esposa, eta Erreguiña lizuñ eta escandalosa hori, ála
 erratendu Ezequiel profetac, zu zara Jesu Christo gure Redentorearen Esposa
 traidore hura, eta bertzenaz guazen pruebara, Silvestro Autoreac erratenduen
 arabera guratsuac engendratzen dutenean, edo formatzen dutenian humebat,
 hume hau baldin bada Semea. egonenda bere Amaren sabelian, berroguey
 egunetara allegatu edo hurbildu artio, batere mugitu gabe, zerengatic eztuen
 animaric, baldin bada Alaba, egonen da guisa berian, lauetan oguey egun
 cumplitu hartañ, vaño orobat da Semea egotea bere Amaren sabelian berro-
 guei egunez, eta Alaba lauetan orgueyez, nola instantehartan berean vizten-
 dira, eta sartzenzaye anima, au da concebitu eta ondoan Persona guciequin
 guertatzen dena, orobat da bada erran dudan moduan, bateq hizatea anima,
 nola instante hartan berean erortzen gara gucioc, ladronen escuetan, baitira
 demonioac, zeñeq billusten, eta arrobatzen baicaituzte, graciazco [13] veztir-
 dura preciosohetariq, uzten gaituztelaric dembora beren, saquiz beteac, nola
 baitira, malicia, flaqueza, eta gañeraco apetitu deshordenatu gucien inclina-
 cioneac *plagis impositis abierunt*. Zu zara sortu eta ordu zembaitetz, hill hurrana
 egonzarena, bada hizanagatic corputzeco vizia, anima egontzen gracia-
 ric gabe. *semivivo relicto*. Zu zara zere buruba ezin erremediatuzenazequena¹⁵,
 zeren becatu originalaren medioz, baitzeunden lotua, oñetic burura *projecta es
 super faciem terrae*. Estadu lastimagarri hunetan aurquitzenziñen noiz eta Erre-
 gue gucien Erreguea, vaita Jesu Christo gure Redentorea, zevillelaric, ani-
 men hizian, lastimaturic zure miseria aundiaz, paratuzituen bere vegui amo-
 rosuac, zure baitan, *et transivi per te, et vici te*. Sartuzinduen bere Echian,
 sendatu zitzquizun saquiac, eta llagac, bere odol preciosoarequin, eta garbi-
 tuzuen zure anima batayoco hur sanduarequin, *lavi te aqua, et mundavi sangui-
 nem tuum ex te*. Zu zara Erregue Soberano huneq veztitu zinduen graciazco
 tela preciosoarequin, *et vestivi te discoloribus*. Zu adornatu zinduen joya, eta
 diamante preciosoeq[ui]n, nola baitira fedia, esperantza, eta caridadia, vertze
 aunitz virtute eta doay ederrhequin, *et ornata es auro, eta argento*. Mercede otaz
 landara zure animarequin esposatuzen Erregue gucien Erreguia, Jesu Christo
 gure Redentorea, *sponsabo te mihi in fide*. Manatuzituen alaber Aingueruac,
 baitira Ceruco Aitzinduriac¹⁶, asistizeco, eta laguntzeco, zere bearcundetan,
Angelis suis mandavit de te. [14] Eta ondarric goiti Jesu Christo gure Erreguea
 bera humillatu zen, zu servitzazera, *in medio vestrum sum, sicut qui ministrat*.
 Zuretaco eguin zuen Ceruco Palacio eder hori, haimbertzeco edertasun, eta
 grandezarequin, zuri ematenzizu egunoroco sustentua, eta gure Jesus maitia-
 ren edeo maitagarriaren gustoric aundiena dea tratazea Christauheq[ui]n, *et
 delitiae meae esse cum filiis hominum*. Hoc dira nere Christau lagunac gure Jaun-
 goico maitagarriac, anima bacochari eguitendition, gracia, favore, eta miseri-

15. Espero dena "-zenezazuena" da. Ik. 17. Oharra.

16. Beti "aitzinduri", ez "aitzindari".

cordiac, horay icusi biardugu nola corresponditzen duen animaq favore aundiota.

Errandiezadazu anima, zer escatzendizu, zure Erregue, eta Esposo Jesu Christo gure Redentoreac, favore eta mercedehoquen aldera? Venturaz escatzendizu hezin eguindezaquezun gauzarenbat? Escatzendizu bertzeric, baiciq conservadezazula zere animian haren ganaco amorioa? Escatzendizu bertzeric baiciq guardadetzazula haren mandamentu santuac? Ez eztizu bertzeriq escatzen gure Jaungoico maitagarriac, eta zuc zer eguindezu¹⁷, ó anima becataria? Horoizate ongui, ezta eguia adimentuan sartu artañeco¹⁸ hurte hetan egon ziñela becuric eguin gabe, zeren ezpaizenazequen¹⁹? Bada adimentuan sartuziñen bezin laster asiziñela ofenditzen zere Esposo divino Jesu Christo gure Redentorea? *fornicata es in nomine tuo* Zuc zere vorondate osoarequin autzizinituen graciazco veztidura preciosoac, eta botatuzinituen zereganic, becatu mortalaren medioz Espiritu Sancti Jaunaren doay, eta virtute ederraq, zuc gaitzesten zenuelariq zere Esposo divino Jesu Christo gure Redentore haren²⁰ ganaco amorioa, antziriq alaver Jaun Soberano harc egin ditizun favore, eta mercede hetaz, paratu zinuen zere aficcionia eta amorioa Munduac, demonioac, eta araguiac, ofrecitzendizquizun gusto, eta entremementu torpe, eta lizuñhetan, zuc zere hatura, eta Jaungoicuac baño lenago, beca-tuaren medioz, emanzenion zere animari condenatzeco sententia, orduan gure Jaungoico amorosuac, [15] misericordiosua den bezala, deitu zinduen bacarrean, eta mintzatzen delariq zure viotzera erratendizu modu huntan, ó nere Christau maitea, dá posible hain gaizqui, eta cruelqui, zuc niri corresponditza, traicioarequin naidituzu pagatu nic, zuri egindazquizudan favore, eta fineza haundi, herrandiezadazu²¹ anima tristea, zergatic gaitzesten, eta menospreciatzen nauzu, venturaz ofenditu zaitut zeren aterazaitudan Infernuco etsayaren cautiberiotiq, eta paratuzaitudan Eliza Sanduco germioan? Ofenditu zaitut zeren emandizudan Batayo Santuan errecibitzen den fedea-ren arguitasuna, eta gracia? Ofenditu zaitut, zeren oguey eta amairu hurtez hibillinaizen Munduz Mundu zure anima salvatziagatic, eta Cerura eramatiagatic? Ofenditu zaitut zeren utzidizudan nere gorputz preciosua Aldareco sacramentu miragarra hortan? Errandiezadazu Becataria zertan faltatu dizut? Eta baldin beti errecibitu badituzu nereganic, gracia, eta favoreaq, zergatic zara horren cruela eta gogorra neretaco? Ea bada nere Christau maitea, itzulzaitte, itzulzaitte, nere gana, eguiazco confesio baten medioz, bada nere baitan aurquituco duzu zure borondateaq desealdetzaquen consuelo guciac, zer idurizaitzue horay nere Christau maiteac, gure Jeus maitagarriaren portatzeco modu hunetaz? Errandiezadazue, zer mereciluque piedade, eta misericordia huntaz beratzen ezten becatariac? Vaña zuen viotz gogor horieq obequi obli-

17. Horrela: "-dezu". Ik. 2. testuko 2. oharra.

18. Lehenbizi *artañaco*, gero *e* ipini du hirugarren *a*-ren gainean, hau ezabatu gabe. Espe-ro dena "artañoco" da.

19. Gero sartu du bigarren *-ze-* silaba. Ik. 13. oharra.

20. Bi zatitan: *Redentore haren*.

21. E "-diezedazu". Bi aldiz "diezedazu" paragrafoan.

gatzeco adizazue gure Jesus Erredentoreac²² berac erratenduena, *congratulami-
ni mihi quia inveni ovem quae perierat*. Ceruco Corte celestial guciaq celebra-
tzendu besta aundia, Becataria Jaungoicuaren gana convertitzen den egu-
nean, eta ez solamente eguitendu besta Sanduhequin batian, baieta here
milletan gueyago estimatzendu, viotzez Jaungoicuaren gana convertitzenden
Becatari hura, ez ezen²³ bere servicio santuan dauzcan Justuac *magis gaudet
Deus super uno peccatore paenitentiam agente, quam nonaginta novem justis*. Ea bada
nere Christaba, itzulzaitte Jesu Christo [16] gure Redentorearengana, berac
deitzenzaitu bere gracia sandura, berac erraten dizu libratuco zaituela Infer-
nuc Demonioaren cautiberiotiq, eta eritua baldinbadaucazu zere anima,
sendatuco dizula bere gracia sanduarequin; idurizaitzu ez etz, + Atoz eta
icuszazu nola dagon Gurutze batian yosiric, zeñetariq convidatzen baitzaitu
amorio aundiarequin, erratenduelariq *Venite ad me omnes*. Uná non dagon
Erregue gucien Erreguia assi oñetic eta bururaño, dena odoleztatua, maltra-
tatua, eta desfiguratua gure becatuen gatic, eta hoquen gucien gañetic dolu
arropaz yauntzia, edo estalia; eta halarican here, ó amorioaren hitsua, etzaitu
deitzen Jueza den bezala, zure condenatzeco, baiciq Aita amorosua den beza-
la, zuri becatu gucieheq barcatzeco, Ea bada nere Christau maiteac, denbora
dá ya itzultzeco Jaungoicuaren gracia sandura, aprobechadezagun bada den-
bora precioso hau, eta gueroraco utzi gabe escadiozagun bereala denetiq
haren Magestade Soberanuaren contra eguin ditugun becatu, ofensa, eta mal-
dade gucien barcacioa, erratendiogulariq viotz guzitiq

Jesu Christo nere Jauna &²⁴.

Año de 1829



2. TESTUA

Dominica XV. Post Pentecostem.

Ecce defunctus efferebatur²⁵, filius unicus matris suae. Luc. 7. &

Exordio. Egun erratendigu Evangelio santuac, nere Cristau viotzecuac,
Jesu Christo gure Jauna ziala bere Discipulo eta Yende tropa aundibatequin
Naíngo ciudadera, eta ciudade hunetaco Portaletara allegatzian tropezatu edo
aurquitu zuela difuntobat, zeña, Judioein costumbre edo usariora zeramaten
enterratzera ciudadez campora. ¡Ó zer desengaño! Icuszazue mortalac di-
funtu gazte hunen baitan gure paraderua, eta viciyaren inconstancia edo se-
gurance gutia.

Advertitu edo erreparatu zuen Jesu Cristoren Magestadiac, entierroco
Yendiequen artian ziyuala difunto haren Ama dena desconsolatua nigarrez

22. Ematen du lehenbizi "Redentoreac" idatzi duela eta gero "Erredentoreac" egin.

23. Espero dena ezen ez da.

24. Lerro honen eta hurrengoaren artean errubrika ezarri du, 2. oharrean aipatu duguna
bera.

25. E "eferebatur". Oker hau bera zuzendu dugu 2. orrialdeko 5. paragrafoan.

bere Semiaren iltziaz, yá zergatic zuen Seme bacarra eta gaztia, yá zerengatic aurquitzenen alargundua, eta gueyago humeriq hizateco esperantzatic gabe; hunen vistan compadecituric gure Jauna guziz piadosoa den bezala, errancion compasionez beteric: Utzizizu, Andria, nigarrac, etzeitecilla aflightu zure Seme difuntuaz, nic emanen dizut viciya. Arrimatuzen fiñ hunequin difunto haren ondora, eta oyu edo voz imperiosobatequin minzatutzizayon manera hunetan: Ea, mancebua edo gaztia, zuri erratendizut, zurequin mintzonnaiz, yequizaitia catadu horretaric, yequizaite eriotzeco estadutic vicitzaco estadura. Obedecituzuen puntualqui; beriala yeiquizen catadutic, eta asizen mintzazen, errealqui resucitatua aurquitzenen prueban; eta modu hunetan vitzuric entregatuzion bere Amari, eta harequin batian bere consuelo guciya. ¡Ó Aita maitagarria, eta nolacua den zure piedadia! Zein aundia den zure misericordia! Cein neurrigabia den zure benignidadia! Nola, eta zein puntualqui consolatzendituzun aflightuac! Amparatzizu, Jauna, becatari miserablioc, eta gure Eliz Ama piadosaren lagrimaz, alargundua zure ausenciaz, [2] eta beñere nigar eguitetic guelditzen eztena bere Semien eriotze espiritualaz, bacocho balitz bezala bere entrañatatic aterico Seme bacarra, concediziguzu gueren lagrimaz mereci eztuguna.

Equenziozu, Jauna, Ama aflightu huni bere nigarraren motibua, eta consolazazu erratendiozularic amoriyoric aundienarequin: Eztezazula nigar eguin, zergatic nic emanen diot vicitza zu orrenbertze deconsolatzen zaituen seme horri, ateratzendutelaric bere culpaco estadu miserabletic. ¿Ó zer dicha guria, nere aditzaliac, unela guertatzen balitz! Zer dicha hain aundia ta singular, baldin instante hunetatic beretic conseguitzen balute gure animac bere Eliza Ama Santaren nigar lagrimen medioz gradiaren vicitza eternua, egungo Evangelioico difunto harc logratuzuen bezala bere Amaren lagrima tiernuen medioz bere corputzeco vicitza! Nay izan dezala bada Jaunaren bondadiac verificadadien hunela bere honra eta gloriaraco, enterratzera zeramaten difunto hunen resurreccionia hizanzen bezala.

Beraz, acabatzen du Evangelioac erratenduelaric, milagro haundi hunen vistan guciyac guelditu zirela arrituric, eta admiracionez beteric, asizirela oyuz: Bedecatua hizan dadiela Jauna, bada utzidigu icustera Profeta aundi hura, Mesías prometitua, Aita eternuaren Semea, eta Munduco Redentorea.

Au da, nere Catolicuac, Evangelioaren letra: hunetan, aditu duzuen bezala, daucagu difunto bat, oroiazten gaituena gutaz precisamente pasatu bear dena: Au da guziyeri allegatu bear zaigula eriotzeco egun terrible, eta triste hura; hunen gatic bada biardugu cargatu gueren consideracionia punto gueyeniq importatzen duen hunen gañian gure salvacioraco &.

Ecce defunctus efferebatur, &

1º. Guizonac ematen duen lenvicico pausua vicitza mortal hunetara, da here sepultura aldera ematen duen lenvicico pausuba: Idequitzen dituen bezin laster bere beguiyac [3] arguira, pronunciatzen dá haren contra eriotzeco sentencia, eta haren baitan vicitzia delitua bailitz bezala, asquida vicitzia hizandezan, merecitzeco eriotzia. Egunero illtzen harigara, dio Apostoluac,

instante bacocho harizaigu equentzen gure vicitzaren porcionebat, urbiltzen-gaituelaric pausubat gueyago eriotzera edo sepulturara. Gorputza consumit-zendá, osasuna gastatzenda, eta inguratzengaituen guciyac destruitzengaitu, alimentubac corrompitzzen gaituzte, erremedioac flacatzengaituzte, barreneco animatzengaituen suzco espiritua bera harizaigu consumitzen, eta hitz batian gure vicitza guciya ezta bertzeric errealidadian, agonía luze, trabajoso, eta triste bat baiciq.

2°. Eguiya dá eztela iguala gure egunaren neurriya, zergatic batzuec vicitzen dire edade haundibat artio, eta antiguazco denboraren bendicionien herederuac bailire bezala, illtzendire egunaz cargaturic zartu eta honduan. Bertziac, Erregue Ezequíasec bezala, icusten dute edaderic orañic oberenian idequitzen beren sepulturen atia; bertziac gaztetasunian, gure Evangelico Mancebo hunec bezala; bertziac azquenec apenas yayotzen dire Mundura, nola egun artan berian acabatzen baitzayo²⁶ beren carrera; momentu fatala, vicihiren bacochari señalatua, dio Job Santuac, eta Jaungoicuaren omnipotenciari reservatua, zergatican guciyac vicigara yaquingabe zembat hiraun biarduten gure egunac; baño naiz guciyec vicigatic incertidumbre edo ignorancia hunequin, baietaere daquigu guciyec, erremedioric gabe allegatu bear duela eriotzeco egun terrible, triste, eta espantoso hura. Egun hura, zeñetaz erranzuen Sⁿ. Gerónimoc, engendratzen edo ematen duela facilidadia Mundu hunetaco gauza pasagero guciyen despreciatu eta aborrecitzeco; egun hura, zeñen consideracioac obligatuzuen Guerrico famatu hura uztera Munduba bere estimacione vano gucieq[ui]n, eta erretiratzera S[an]to Domingoco Religione sagradura, ongui, eta Christau eguiazcua bezala illtzen icasteco deseyuarequin.

3°. Hizan zen bada casua, N. C. ezen leitzen arizelaric Guer[ri]co Génesis-co bostgarren capitulua, zeñetan contatzen baiditu²⁷ Moysesec²⁸ [4] Mundu hunetan hizandudiren lenvico guizonhen vicitzac, erreparatuzuen hitz batian, zeñequin acabatzen baitu relacione²⁹ edo contu bacocho. Erratendu bada Moysésec, vicitu zen Adan bederetzieta eun, eta oquey eta amar urtez, eta belá *et mortuus est*. illtzen. Vicituzen Enós bederetzieta eun eta bortz urtez *et moruus est*, eta illtzen; eta guisa hunetan bertze guciyac. ¿Zerda hau? erratenzuen Guerricoc. ¡Guciya eldudela guelditzera eriotzian! Mundu hunetan estimatzen den gauza guciya, dela ondasuna, recreuac, gustuac, diversioneac, grandeza, honrac eta dignidadiac guciyac eldudirela acabatzera eriotzian! Neregana here etorri biarduela eriotzia³⁰ hunec! ¿Bada zertaco gastatzen dut denbora estimacione vanuen hirabazten nere letraquin? Zer eguiten dut divertituz Mundu hunetan? Ciertua dela, ill bear dudela? Allegatu bear duela eguna, zeñetan erranenduten nitaz, bertziaz bezala, illtzen Guerrico? Bada banuaye ongui illtzen icasteco escola artara. Erretiratuzen, vicituzen, eta ill-

26. Espero dena “-tzaye” da.

27. E “báditu”.

28. E “Moyésesecc”.

29. E “relacione”.

30. Hitz bat egiten dutela *eriotzia* eta *hunec*.

tzen santuqui. ¡Ó nola alegratuko den horay bere resolucionian hizanzuen aciertuaz!

Nere³¹ aditzen nauzuen Catolicuac, ¡ciertua dela, hill beardugula, gure aitzinecuac hilltziren bezala! Bada zer hemequeri dá guria horrenbertze cuidado paratzen bereala acabatu biarduen vicitza batian, eta hainbertze descuido beti vici edo hiraun bear duen anima pobre hunetaz? Solamente hizanendute vicitza eriotze hunen onduan obra onac, penitenciac, baruegunac, humildadiac, munduco desprecioac, limosnac, sacramentu santuen frequenzia; ¡Eta hau hain despreciatua, eta atzendua, ezpailitzeque bezala gloriya eternobat, zeñetan gozatu, edo Infiernubat zeñetan padecitu! Hau bacarric vici dá betico, bertze gañeraco guciya [5] illtzenda, eta gu hequin batian. Honrac illtzendira, edertasuna illtzenda, lettrac hiltzendira, ondasunac illtzendira, recreuac diversioniac hilltzendira, hitz batian guciya hilltzenda: Baña ¿ó dolorea eta lastima! Guciyac³² ezagutzendugu eguiya hau, guciyec siñestendugu, hill beardugula, baña allegatzen garenia[n] bacocharen eriotze particularera, iñorcere³³ eztu pensatzen bere burubaz hain agudo allegatu beartzayola eriotzia ¿badaquizue zertaz? Adiziozue zer dion Fray Luis de Granada Venerabliarc=

Erratendu, veguiratzendutela, edo estimatzenduetela Guizonac beren lagun proximoaren viciya aguitzequin amorio bajoguan beren propiua baño; eta nola amorioac guciya itsutzen baitu, eta hizanic bacochar bere burubari dion amorioa comparacioneric gabe aguitzequin aundiagoa bere lagun proximoari diona baño, hunengatic izagutzedu³⁴ edo advertitzendu bere lagun proximoaren baitan fragilidade³⁵ humana, cergatic eztuen itsutzen pasioniac; baño bere baitan consideratzendu aguitz urruti eriotzia itsutzen duen pasionearen medioz, siñets azten diolaric pretexto aparente eta fingitueq[ui]n, allegatua gatic bertzeren gana eriotzia, eztuela allegatu biar hain agudo haren gana.

Eguiazqui, nere aditzaliac, ¿Nola litzeque posible, ez erreinatza gure artian amorio itsu hunec, mostratzen edo iracusten digularic Jaungoicuac ainbertze abisu eta exemplareq[ui]n gure deus eza, eta eriotzeco autsa, hizan lezaquen guizonac valoria ez esperatzeco bertze ainbertze desengaño instante bacochar, eta disponitzeco beriala momento hartan berian hill bear bailu bezala?

Predicadoria aditzeracoan, edo bertziac illtzen icustean, den divertituhe-nac ezagutzendu precisamentequi hill bearduela; ¿Nola litzaque bada posible, atzen leitequen guizona bere burubaz, desengaño hunen vistan, emangabetanic pausubate bere enmiendaraco, baldin ezpaltz itsutzen bere vicitzaren amorio desordenatuareq[ui]n? Au da, nere Christabac, causa, ezta hunetan dudaric; amorio propioan dá motibua, icustendugularic egunero gueren beguien aitzinian eriotzia, [6] ez naihizateco beguiac edequi desengañuraco, eta

31. Espero dena *ni* da.

32. Hemen "guciyac", eta lau hitz beherago "guciyec".

33. E "iñorcere", dena batean.

34. Hemen "izagutzen-" eta bi paragrafo beherago "ezagutzen-".

35. E "fragilidadiel -ia" edo.

gure c[os]tumbrien arregloraco, baicic beti iduritzenaigu eri[ot]zia aguitz hurruti, ezagutzen dugun harren, por f[ue]rza allegatu bear duela. Minzode-diela bertzelaz experiencia bera. Aditzen duzu, illtzela zure barride hur[a] Predicadoriac deitzendizula mortala, lurra, eta autsa, eztut dudatzen ala siñesten duzula; baño errancidazu, ¿obratzen duzu siñestendezun³⁶ arabera? Tratatzen duzu beriala denic uztera comunicacione torpe hori? Detel[r]minatzen zara beriala denic bertzeren gauza hori bere yabeari itzulzera? Resolvi-tzen zara tardanzaric gabe tratu gaisto horien uztera, moscorcari horiec, jura-mentu, maldicione eta escandalo horiec? Prevenitzen zara beriala denic obra onequin, oracioaq[ui]n, munduco erretiroeq[ui]n, confesioanareq[ui]n, baru-guneq[ui]n³⁷ eta mortificacioareq[ui]n³⁸ ongui, eta santuqui illtzeco? Ojala hau eguia balitz; baño lastimada, itsutua zere amorio propioarequin eztuzula casoric eguiten ongui obratziatz, eta solo pensatzen duzu, altenatzia³⁹ edo eguitia Nabucoc bezala codiciaren, soberbiaren eta lujuriaren estatua berri-yac, eriotzeric ezpailitz bezala, edo siñesten ezpaitzenu bezal[a].

Nere Cristaba, ¿Zer dá hau?

HIZTEGIA

A

- ABIADURA (i.) 'hasiera'. guelditu ... vasa mortuharen principioan edo *abiaduran* 1, 8.
 ADIMENTU (i.) 'intellectus'. *adimentua* 1, 1, 1.
 ADITU (a.=) 'entzun'. *aditu* 1, 4.
 AGITZ (ad.) 'guztiz'. *aguitz* urruti 2, 5, 2; *aguitzequin* aundiagoa 2, 5, 2.
 AINGERU (i.) 'angelus'. *Aingueruac* 1, 13.
 AITORTU (a.) 'konfesatu, deklaratu'. *aitortuzion* bere fragilidadia 1,11.
 AITZIN (i.) 'aurre'. beguien *aitziñian* 1, 6, 3: *aitzinathago* pasatu gabe 1, 6, 3.
 AITZINDURI (i.) 'buruzagi'. *aitzinduriac*, eta nerebiac 1, 11, 1.
 AITZIÑEKO (i.) 'asaba'. gure *aitziñecuac* hilltziren bezala 2, 4, 2.
 ALDI/ALDIKO (i.) 'zartada, kolpe'. josizuten puñalaco *aldiz* 1, 7; *canibeta aldicuen* medioz ... zituen ... marca ... itsusietan 1, 8.
 ALTENATU (a.) ?. *altenatzia* edo eguitia Nabucoc bezala codiciaren, soberbiaren eta lujuriaren estatua berriyac 2, 6, 1. Ik. 2. testuko 15. oharra.
 ANIMA (i.) 'arima'. *anima* 1,4.
 ANTZI (a.) 'ahantzi'. *antziric* ... mercede aundiaz 1, 10, 2.
 ARABERA (ad.) 'legez'. erratenduen *arabera* 1, 12, 2.
 ATERA (a.) 'irten'. *aterazitzayen* 1,7.
 ATZENDU (a.) 'ahantzi'. despreciatua, eta *atzendua* 2, 4, 2.
 AUNDI (adj.) 'handi'. *aundia* 2, 1, 2.
 AUNITZ (d.) 'asko'. *aunitz* virtute 1, 13.
 AURKITU (a.) 'kausitu'. *aurkitu* zuela 2, 1, 1; *aurquituco* 1, 15.
 AUTS (i.) 'pulvis'. mortala, lurra, eta *autsa* 2, 6, 1.

36. Horrela: "-dezun". Ik. 1. testuko 15. oharra.

37. Hemen "baruguneq[ui]n", baina "baruegunac" 4, 2 lehenbizi, gero -e- hori agian eza-batua izan da.

38. E "mortificaciateq[ui]n".

39. Ez dakigu zer den hitz hau. Bestalde, esagun, OEH-n "aldenatu" 'descarrar' dago eta *Azkue Apéndice* aipatzen da, baina hemen "alderatu" 'descaminarse' ageri da.

B

- BALDIN/BALIN (ad.). *valdinetan baldin ezpalimbazen* enmendatzen 1,11.
 BALIATU (a.) 'probetxatu'. *valiatzenda ...* huntaz 1, 4.
 BARRIDE (i.) 'Auzoko'. zure *barride* hura 2, 6, 1.
 BEARKUNDE (i.) 'premia'. laguntzeco, zere *bearcundetan* 1, 13.
 BEDERETZI (d.) 'bederatzi'. *bederetzietan* eun, eta oguey eta amar 2, 4, 1; *bederetzietan* eun eta bortz 2, 4, 1.
 BEKATARI (i.) 'peccator'. *becatari* 2, 1, 2.
 BERATU (a.) 'bigundu'. *beratzen* 1, 15.
 BERESI (a.) 'hautatu'. *beresi*, eta autatu 1, 10, 3.
 BERIALA (ad.) 'brehala'. Determinatzen zara *beriala denic* 'bertatik'? 2, 6, 1.
 BEZTU (a.) 'belztu'. *bezten* duzula 1, 4.
 BILLUSI (a.) 'biluzi, biluztu'. *billusten*, eta arrobotzen 1, 12, 2. Agian "billustu".
 BORTITZ (adj.) 'gogor'. pasione 'nekaldi' *vortitz* hura 1, 6, 5; muralla *vortitzbat* 1, 4; arma *bortitzac* 1, 9, 2.
 BOTATU (a.) 'bota'. *botatuzinituen* 1, 14, 2.

D

- DEADAR (i.) 'deiadar'. emancion, hoyu, *deadar*, eta marrascari 1, 7.
 DEUSEZ (i.) 'ezerez'. *deus eza*, eta flaqueza 1, 5, 2.

E

- EDADE (i.) 'adin'. *edaderic* orañic oberenian 2, 3, 2.
 EDEKI/IDEKI (a.) 'ireki'. beguiac *edequi* 2, 6, 1; icusten dute ... idequitzen beren sepulturen atia 2, 3, 2.
 EKENDU (a.) 'kendu'. *equendu* 1, 6, 4; *Equenziozu* 2, 2, 2.
 HEMEKERI (i.) 'umekeria' (?). zer *hemequeri* dá guria horrenbertze cuidado paratzen bereala acabatu biarduen vicitza batian ...? 2, 4, 2.
 ENTENDIMIENTU (i.) 'intellectus'. memoria, *entendimientua* 1, 5, 2. Ik. ADIMENTU.
 HERE (ad.) 'ere'. Nihoz *ere* baño obequi 1, 1, 1; iñorc *ere* eztu pensatzen 2, 5, 1.
 ERRAN (a.) 'esan'. *erranzuen* 2, 3, 2.
 ERROITZ (i.) 'amildegi'. botatu ... *erroizbat* bera 1, 7; *erroitzera* zeramaten 1, 7.
 ESPIRITU SANKTI (i.) 'Sanctus Spiritus'. *Espiritu Sancti* Jaunac 1, 5, 2.

G

- GAZTE (adj.) 'iuvenis'. Nescacha *gaztebat* 1, 6, 4.
 GAZTIGATU (a.) 'ohartarazi'. *gaztigatzen* Erregueac 1, 2.
 GIARI (i.) 'magistra'. gure *Guiaria*, edo maestra (: *Eliza*) 1, 1, 2.
 GUZI (d.) 'guzti'. *guciac* 1, 9.

I - J

- YAYO (a.) 'jaico'. *yayotzen* dire Mundura 2, 3, 2.
 YAUNZI (a.) 'jantzi'. lutuz *yaunciric* 1,3.
 YEIKI/YEKI (a.) 'jaiki'. *yeiquizen* 2, 1, 2; *yequizaitia* 2, 1, 2.
 IMAJINA (i.) 'irudi'. *imagina* horiec 1, 4; *Imagiñac* 1, 4.

- IÑOR (io.) 'inor'. *iñorc* ere eztu pensatzen 2, 5, 1.
 YOKATU (a.) 'jo, eman'. *yocatu* baitzuten, arrica, 1, 1, 2; *yocatu* (: *eraso*?) zitzaizquion Erre-
 gueri 1, 7.
 IRAKUTSI (a.) 'erakutsi'. mostratzen edo *iracusten* digularic 2, 5, 3.
 HIZI (i.) 'ehizi'. zebillan ... *hiziyan* Erreguia 1, 7; animen *bizian* 1, 13.
 JAUNGOIKO (i.) 'Jainko'. *Jaungoico* amorosuari 1, 6, 3.
 JUDU (i.) 'judegu'. *Judueq* 1, 1, 2; *Juduec* 1, 2, 2.

K - L - M - N

- KANIBETA ALDIKO (i.) 'laban-sastako'. *canibeta aldicuen* medioz 1, 9.
 KATADU (i.) 'karabuta, zerraldo'. yequizaitia *catadu* horretaric 2, 1, 2.
 KRISTAU (i.) 'kristinau, giristino'. *Christau* 1, 3.
 LANDARA (p.) 'gainera'. Mercede otaz *landara* 1, 13.
 LAUETAN OGEI (d.) 'larogei'. *lauetan oguey* egun 1, 12, 2; Semea egotea ... berrogueri egu-
 nez, eta Alaba *lauetan oguey* 1, 12, 2.
 LIZUÑ (adj.) 'likits, lizun'. becatu liquits eta *lizuñean* 1, 10, 2; *lizuñ* eta 1, 12, 2.
 MANATU (a.) 'agindu'. *manatu* zituen ... guciac 1, 9.
 MEREZI IZAN (a.) 'merezitu'. zer *mereziluke* ... becatariac? 1, 15.
 MERZEDE (i.) 'famore'. *mercede* 1, 10, 2.
 MOSKORKARI (i.) 'mozkorkeria'. *moscorcari* hories, juramentu ... 2, 6, 1.
 NAUSA (i.) 'iseka'. burlac, *nausac*, desprecioac 1, 2, 2.
 NEREABE/NIRABE (i.) 'mirabe'. aitzinduriac, eta *nereabiac* 1, 11, 1; Palacioan zuen Nirabe
 bati 1, 10, 2.
 NIGAR HURI (i.) 'negar-malko'. *nigar hurieiquin* edo lagrimaiquin 1, 2, 2; *nigar hurieiquin*
 1, 10, 2.
 NIHOIZ (ad.) 'inoiz'. *Nihoiz* ere baño obequi 1, 1, 1.

O - P - S

- ONDAR (d.) 'azken'. *ondarriq* goiti 'azkenik' 1, 9; *ondarri* goiti 1, 14, 1.
 ONGAITZAK (i.) 'gauza guztiak'. arrobatu, eta equenduzitiozten bere *on, gaitzac* 1, 6, 4.
 ORAI (ad.) 'orain'. *horay* 1, 2, 2.
 PODORE (i.) 'botere'. *podore* 1, 5, 2.
 PREDIKADORE/PREDIKARI (i.) 'sermoilari'. *Predicadoriac* 2, 6, 1; *Predicarien* 1, 4.
 SAKI (i.) 'zauri'. *saquiac*, eta llagac 1, 13.
 SANDU/SANTU (adj.) 'saindu'. Eliza Ama *Sandua* 1, 3; gracia *sandura* 1, 16; Eliza Ama
Santuac 1, 1, 2; Eliza Ama *Santaren* (sic *-ta-*) 2, 2, 2.
 SORTU (a.) 'jaio'. *sortu* eta ordu zembaitz 1, 23.

T - U - Z

- TRINTATE (i.) 'Hirutasun'. *Trintate* Jaun Poderosoa 1, 4, 1.
 HUME (i.) 'haur, sein'. formatzen dutenian *humbat, hume* hau ... 1, 12, 2.
 HURRAN (ad.) 'ia, hurbil'. zu zara ... hill *hurrana* egonzarena 1, 13.
 ZEREN (j.) 'quia'. *zeren* libratu zinduan (nik zu) 1, 10, 3.
 ZERENGATIK (j.) 'quia'. *zerengatic* eztuen 1, 12, 2.
 ZERGATIK/-AN (j.) 'quia'. *zergatic* nic emanen diet 2, 2, 2; *zergatican* guciyac vicigara 2, 3,
 2; *zergatic* eztuen 2, 5, 2.

ADIZKITEGIA

B

- BAILIRE 'balira'. antiguazco denboraren bendicionien herederuac *bailire* bezala, illtzendire egunaz cargaturic zartu eta honduan 2, 3, 3.
 BAILITZ 'balitz'. *bailitz* bezala 2, 3, 1; *ezpailitz* 2, 16 1. Ik. LITZAKE/LITZEKE: *ezpailitz* bezala 2, 4, 2.
 BAILU 'balu'. *bailu* bezala 2, 5, 3.
 BAITZENU 'bazenu'. siñesten *ezpaitzenu* bezala 1, 16, 1.
 BALITZ 'balitz'. *balitz* (sic *ba-*) bezala 2, 2, 1.
 BALU 'balu'. *erratembalu* bezala 1, 4.
 BALUTE 'balute'. conseguitzen *balute* 2, 2, 2.
 BEZA 'beza'. Erran *beza* 1, 1, 2.
 BEZATE 'bezate'. *erranbezate* 1, 3.

D

- DA 'da'. *da* 1, 3; *den* 1, 1, 2.
 DADIEN 'dadin'. *verificadadien* 2, 2, 2. Ik. DEDIEN.
 DAITEKE 'daiteke'. *Esperadaiteke* 1, 12, 2.
 DAZKIZUT 'dizkizut'. *eguindazkizudan* 1, 15.
 DEDIEN 'dadin'. *Minzodediela* 2, 6, 1.
 DETZAKE 'ditzake'. *desealdetzaquen* 1, 15.
 DETZAZUN 'ditzazun'. *guardadetzazula* 1, 14, 2.
 DEZAGUN 'dezagun'. *aprovechadezagun* 1, 16.
 DEZAKE 'dezake'. *hizandezaque* 1, 5, 2.
 DEZAKEZU 'dezakezu'. *dezaquezun* 1, 4, 2.
 DEZAN 'dezan'. izan *dezan* 2, 3, 1.
 DEZAZUEN 'dezazuen'. *entendidezazuengatic* 1, 6, 3.
 DEZAZUN 'dezazun'. *conservadezazula* 1, 14, 2.
 DEZU 'duzu'. *eguindezu* (sic *de-*) 1, 14, 2; ¿obratzen duzu siñestendezun (sic *de-*) arabera? 1, 16, 1.
 DIEZADAZU 'diezadazu'. Erran *diezadazu* 1, 10, 3.
 DIGU 'digu'. *digu* 1, 4.
 DIO 'dio'. *dion* 1, 6, 3; *baitio* 1, 7.
 DIOGU 'diogu'. *diogulariq* 1, 16.
 DIOT 'diot'. *diot* 2, 2, 2.
 DIOZAGUN 'diezaigun'. *escadiozagun* 1, 16.
 DIOZOZU 'diezaiozu'. *escadiozozu* 1, 5, 1.
 DIOZU 'diozu'. *diozularic* 2, 2, 2; *eztiozun* 1, 4.
 DIRA/-E 'dira'. *dira* 1, 12, 2; *dire* 1, 3; *direra* 1, 1, 1.
 DITIGU 'dizkigu'. *ditigun* 1, 1, 1.
 DITIO 'dizkio'. *dition* 1, 14, 1.
 DITIZU 'dizkizu'. *ditizun* 1, 14, 2. Ik. DIZKIZU.
 DITIZUT 'dizkizut'. *eguinditizudan* 1, 10, 2.
 DITU 'ditu'. *baititu* 1, 6, 1; *dituen* 1, 3.
 DITUZTE 'dituzte'. *dituzten* 1, 4.
 DIZKIZU 'dizkizu'. *dizkizun* 1, 14, 2. Ik. DITIZU.
 DIZUET 'dizuet'. *dizuet* 1, 6, 3.
 DIZUT 'dizut'. *dizut* 1, 15; *dizudan* 1, 11, 1.
 DU 'du'. *du* 1, 12, 2; *naibaitu* 1, 1, 2; *duen* 1, 2, 2.
 DUGU 'dugu'. *dugu* 1, 3.

DUT 'dut'. *dut* 1, 2, 2; *Ezdut* 1, 9, 2; *dudala* 1, 11, 2; *dudela* 2, 4, 1 *dutelaric* 2, 2, 2.
 DUZU 'duzu'. *duzu* 1, 10, 2; *eztuzu* 1, 4. Ik. DEZU.
 DUZUE 'duzue'. *duzue* 1, 1, 1.

G - L - N - TZ

GAITU 'gaitu'. *gaitu* 1, 6, 2; *gaitularic* 2, 3, 1.
 GAITUZTE 'gaituzte'. *gaituzte* 2, 3, 1; *baicaituzte* 1, 12, 2.
 GARA 'gara'. *gara* 1, 3; *garen* 1, 6, 3.
 LEITEKE 'liteke'. Nola litzaque bada posible, atzen *leitequen* guizona ...? 2, 5, 4.
 LEZAKE 'lezake'. Nola litzeque (sic *-tze-*) posible ... hizan *lezaquen* guizonac valoria ...? 2, 5, 3.
 LITZAKE/LITZEKE 'litzateke'. eapailitzeque bezala 2, 4, 2. Ik. LEITEKE eta LEZAKE.
 LUKE 'luke'. *merciluque* 1, 15.
 NAIZ 'naiz'. *naiz* 1, 2, 2.
 NAUZUE 'nauzue'. *nauzuen* 2, 4, 2.
 NITUEN 'nituen'. *nituen* 1, 10, 3.
 NUKE 'nuke'. *nuque* 1, 1, 1.
 TZIZU 'itzazu'. *Amparatzizu* 2, 1, 2.

Z.

ZAIE 'zaie'. *zaye* 1, 12, 2.
 ZAIGU 'zaigu'. *zagu* 2, 3, 1; *zaigula* 2, 2, 4.
 1 ZAIO 'zaio'. *beartzayola* 2, 5, 1.
 2 ZAIO 'zaie'. *acabatzen baitzayo* 2, 3, 2.
 ZAITE 'zaitez'. *Horoizaitte* 1, 14, 2; *itzulzaitte* 1, 15.
 ZAITEZIN 'zaitezen'. *hitzulzaitezin* 1, 11, 2.
 ZAITIA 'zaitez'. *yequizaitia* 2, 1, 2.
 ZAITU 'zaitu'. *zaitu* 1, 16; *zaituen* 2, 2, 2.
 ZAITUT 'zaitut'. *zaitut* 1, 10, 3; *zaitudan* 1, 10, 3.
 ZAITZU 'zaizu'. *zaitzu* 1, 16.
 ZAIZKIO 'zaizkio'. *zaizquion* 1, 8.
 ZAIZUE 'zaizue'. *zaizue* 1, 3; *zaitzue* 1, 12, 2.
 ZARA 'zara'. *zara* 1, 12, 2; *baitzara* 1, 4; *zarena* 1, 13.
 ZATE 'zarete'. *zatela* 1, 9, 2.
 ZAZU 'ezazu'. *icuszazu* 1, 16.
 ZAZUE 'ezazue'. *Icuszazue* 1, 2, 2.
 ZEITEZIN 'zaitezen'. *etzeitecilla afligitu* 2, 1, 2.
 ZEN 'zen'. *zen* 1, 6, 3.
 ZENAZEKE 'zenezake'. *ezin erremediatuzenezazuena* 1, 13; *ezpaizenazequen* 1, 14, 2.
 ZENION 'zenion'. *zenion* 1, 14, 2.
 ZEZEN 'zezan'. *etzezengatic* 1, 7: horrela, hots, "zezen-".
 ZEZATEN 'zezaten'. *utzizezatela* 1, 7.
 ZIDAZU 'iezadazu'. *errancidazu* 2, 6, 1.
 ZIEN 'zien'. *zien* 1, 7.
 ZIGUZU 'iezaguzu'. *concediziguzu* 2, 2, 1.
 ZINDUAN 'zintudan'. *libratu zinduan* (nik zu) 1, 10, 3.
 ZINUEN 'zintuen'. *Sartuzinduen* (hark zu) 1, 13.
 ZINITUEN 'zenituen'. *zinituen* 1, 14, 2.
 ZINUEN 'zenuen'. *zinuen* 1, 14, 2.
 ZIÑEN 'zinen'. *ziñen* 1, 13.
 ZION 'zion'. *emancion* 1, 7.

ZIOTEN 'zioten'. *zioten* 1, 8.
 ZIOZATEN 'ziezazkioten' (sic). *ecarziozatela* ... *Medicua* 1, 8.
 ZIOZU 'iezaiozu'. *Equenziozu* 2, 2, 2.
 ZIOZUE 'iezaiozue'. *Adiziozue* 2, 5, 1.
 ZIREN 'ziren'. *hilltzioren* 2, 4, 2; *sartuziren* 1, 8.
 ZITEZIN 'zitezen'. *gueldizitezila* 1, 8.
 ZITIGUN 'zizkigun'. *emanzitigun* 1, 6, 1.
 ZITION 'zizkion'. *zition* 1, 8.
 ZITIOZTEN 'zizkioten'. *heguinzitiozten* 1, 1, 2.
 ZITUEN 'zituen'. *zituen* 1, 8.
 ZITZAIEN 'zitzaien'. *aterazitzayen* 1, 7.
 ZITZAIION 'zitzaion'. *zitzaion* 2, 1, 2.
 ZITZAIKION 'zitzaizkion'. *asizitzaizquiton* 1, 7.
 ZITZKIZUN 'zizkizun'. *zitzquizun* 1, 13.
 ZIZU 'itzazu'. *Utzizizu*, *Andria*, *nigarrac* 2, 1, 2. Ik. *TZIZU*.
 ZUEN 'zuen'. *zuen* 1, 2, 2.
 ZUTEN 'zuten'. *zuten* 1, 7.

ADIZKI TRINKOAK

ATOZ 'zatoz'. *Atoz* 1, 16.
 DAGO 'dago'. *dago* 1, 5, 2; *dagon* 1, 16.
 DAKIGU 'dakigu'. *daquigu* *guciyec* 2, 3, 2.
 DAKIZUE 'dakizue'. *badaquizue* 2, 5, 1.
 DAUDE 'dadue'. *daude* 1, 5, 2.
 DUKAGU 'daukagu'. *daucagu* 2, 2, 4.
 DAUKAZU 'daukazu'. *daucazu* 1, 16.
 DAUZKA 'dauzka'. *dauzcan* 1, 15.
 DIO 'dio, esaten du'. *dio* 2, 3, 1, *dion* 2, 5, 1.
 GUAZEN 'goazen'. *guazen* 1, 12, 2.
 NUAIE 'noa'. *banuaye* 2, 4, 1.
 ZEBILLAN 'zebilen'. *zebillan* 1, 7; *zevillearic* 1, 13.
 ZEBILTZAN 'zebiltzan'. *zebiltzan* 1, 11, 2.
 ZERAMATEN 'zeramaten'. *zeramaten* 2, 1, 1.
 ZEUNDEN 'zeunden'. *baitzeunden* 1, 13.
 ZIOAN 'zihoan'. *zioalaric* 1, 6, 4.
 ZIYUAN 'zihoan'. *ziyuala* 2, 1, 1.

LABURPENA

Ematen ditugun bi testuok Narbarteko semea zen Lakoizketa apaizak idatziak dira. Er-
lijo agiriak dira, predikuak direlarik, eta Bidasoa aldeko euskaraz daude moldatuak.
Juan Ramon de Lakoizketa Bertiz (1801-1858) da egilea, Jose Maria de Lakoizketa
(1831-1889), botaniko ospetsuaren osaba. Lehenbizikoa 1829. urtean dago egina, Do-
namariako erretoze zelarik egilea, bestea geroagokoa dela uste dugu.

RESUMEN

Los dos textos que publicamos fueron redactados por el párroco de Donamaria e hijo de
Narbarte, Lakoizketa. Son de tema religioso, pues se trata de dos sermones, y su vas-
cuence es el de la región navarra del Bidasoa. Juan Ramón de Lakoizketa Bertiz (1801-
1858) es su autor, y es sobrino del famoso botánico Jose Maria de Lakoizketa (1831-
1889). El primer texto fue escrito en 1829, siendo de fecha posterior el segundo, a
nuestro parecer.

RÉSUMÉ

Les deux textes que nous publions furent rédigés par le curé de Donamaria, originaire
de Narbarte Lakoizketa. Les thèmes sont religieux, car il s'agit de deux sermons. Son
basque correspond à la région Navarraise de la Bidasoa. Juan Ramón de Lakoizketa Ber-
tiz (1801-1858) en est l'auteur. C'est le neveu du célèbre botaniste José María de La-
koizketa (1831-1889). Le premier texte fut écrit en 1829, et le second, nous semble-t-
il, fut rédigé postérieurement.

SUMMARY

The two texts published here were written by the parish priest of Donamaria Juan
Ramon de Lakoizketa Bertiz (1801-1858), who was born in Narbarte, a village situated
in the Bertizarana valley, the High-Navarre. They deal with religious themes, sermons
as they are, and show the Navarrese Basque spoken in the Bidasoa region. Jose Maria de
Lakoizketa (1831-1889), the famous botanist, was the author's nephew. The first docu-
ment was written in 1829, the second one some time later.

